



TEATRO  
ARRIAGA  
ANTZOKIA

## ***Hurkus & Laika* ikuskizunak, hilaren 29an, asteazkenean, eta Ruper Ordorikaren kontzertuak, hilaren 30ean, ostegunean, jarriko diote amaiera 2021 urteari Arriaga Antzokian**

- *Hurkus & Laika*, familiei zuzendutako ikuskizun zoragarria kontzertu baten eta ipuin kontalari baten artean dabil, eta koru baten eta musikaren laguntzarekin kontatutako bi istorioz goatzeko aukera eskaintzen digu.
- Ruper Ordorikak *Amour eta toujours* disko berria aurkeztuko du Arriagan, musikari talde bikainak lagunduta.

**Bilbo, 2021eko abenduaren 27a.** – 2021 urtearen amaiera hurbiltzen ari da, baina oraindik emozioak ditugu Arriaga Antzokian bizitzeko. Une honetan, **Mayumana** konpainia prestigiotsua bere *Currents* ikuskizunaren emanaldiekin amaitzen ari da. Atzo, igandean, estreinatu eta gero, gaur arratsaldean ikusi ahal izango dugu, emanaldi bikoitzean, 18:00etan eta 21:00etan, eta bihar, asteartean, 28an, beste bi saio egongo dira ordu berean.

Nazioarteko konpainia ospetsuaren ondoren, urteko azken bi proposamenak euskal artisten eskutik iritsiko zaizkigu. Abenduaren 29an, asteazkenean, 19:30ean, musikak eta hitzak bat egingo dute, familiei euskaraz zuzendutako ikuskizun eder batean, ***Hurkus & Laika: bi ipuin musikatuak*** izeneko ipuin kontalari musikal dibertigarrian, hain zuzen. Kontzertuaren eta ipuin kontalariaren artean dabilen ikuskizunak **Andoni Alemanek** eta **Miren Lourdes Mitxelenak** kontatutako bi istorioz goatzeko aukera emango digu, **Gaudeamus Korala** Gernikako abesbatzak eta **Kuraia Ensemble** talde instrumentalak interpretatutako **David Azurzaren** musikaz lagunduta. David Azurzak berak zuzentzen du kontzertu/ipuin kontalari hau, bi istorio transmititzen dituena: *Hurkus*, **Joxemari Iturralde**ren testua, eta *Laika*, **Bernardo Atxagaren** jatorrizko testua, Joxemari Iturralde berak egindako itzulpenarekin.

Eta ostegunean Ruper Ordorikaren txanda izango da, zeinak *Amour eta toujours* disko berria aurkeztuko baitu kontzertuan; harekin, euskal musikaren ezinbesteko erreferente honek 20 disko baino gehiagoko zerrenda handitzen du. Abesti berrietan, Ordorikak bere ahots nahasezinarekin eta, bere ohiko dotoretasunaz, istorioak kontatzeko duen moduarekin berriz ere liluratuko gaitu. Gainera, Arriaga Antzokian musikari bikainak izango ditu lagun, besteak beste, **Arkaitz Miner** (gitarra, biolina eta mandolina), **Lutxo Neira** (baxua), **Hasier Oleaga** (bateria), **Eduardo Lazaga** (perkusioak) eta **Nando de la Casa** (perkusioak eta teklatuak).

Ibilbide luzean, tradizio herrikoiarekin egin du bat Ruperrek. Hiru Truku hirukotea sortu eta hiru disko grabatu zituen, euskal abesti herrikoien ikerketan oinarrituz. Era berean, nazioarteko abangoardiako musikariak ere lagun izan ditu bere grabaketa eta jardueretan: Ben Monder, Jamie Saft, Kenny Wollesen eta abar. Nortasun denboragabe eta iraunkorreko abestiak dira emaitza, atmosfera klasiko eta garaikide batean bilduak.

### **ARRIAGA ANTZOKIKO SARRERAK**

- **Hurkus & Laika**: 11 euro, 15 urtetik beherakoak / 15 euro, 15 urtetik gorakoak
- **Ruper Ordorika**: 20 euro

Salgai [www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus) helbidean edo antzokiko txarteldegietan, aurretiazko salmenta ordutegian.

**Hiru emanaldi horiei eta Arriaga Antzokiak programatutako ikuskizun guztiei buruzko informazio zehatzagoa:**

**<https://www.teatroarriaga.eus/proximos-espectaculos/?lang=eu>**

Informazio gehiago:  
Komunikazioa - ARRIAGA ANTZOKIA  
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307  
[comunicacion@teatroarriaga.eus](mailto:comunicacion@teatroarriaga.eus)  
[www.teatroarriaga.eus](http://www.teatroarriaga.eus)